

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko otsailaren 8a

Egunkaria

Gehigarri honetan




Urdazubi • Alkerdi eta Berroberriako leizeen ingurua hobetzeko laguntza eman du Nafarroako Gobernuak
Juan Velez • «Euskarazko filmak sarriago botatzen dituztenean utziko dugu Karrikiriko zinemaldia»

Mozorro berri on

Inaute garaia dugu; ilargi urteberria agurtzeko, edozer gauza satirizatzeko edota barneko benetako gizakia azaleratzeko. Mendeetan inauteriak ospatzeko arrazoiak aldatu egin dira, baina inauteriak ospatzen segitzen dugu, eta hori da garrantzitsuena.

Asteburu honetan Nafarroako makina bat herritan izanen ditugu maskara, mozorro eta disfrazak: Bera, Lesaka, Arizkun, Unanu, Altsasu, Iruñea, Lizarra, Tütera, Cintruenigo, Cascante... Eta, nola ez, Lantz.



Urdazubi • Alkerdi eta Berroberriako leizeen moldatzea

Urdazubiko leizeetatik eraman zituzten aztarnak leheneratu nahi ditu Udalak, erakusketa egiteko

Nafarroako Gobernuak Alkerdi eta Berroberriako leizeetan lanak egitea onartu berri du. 1975ean itxi zituzten azkenengoz, eta gaur egun arras hondatuta daude. Lanak egiteko 27.150 euroko laguntza izanen da.




Ikaburuako leizea bisitatzen ahal da, baina Alkerdi eta Berroberriakoak itxita daude. • FOTO ZALDUA

URDZUBIKO ALKERDI ETA Berroberriako leizeak ez dira oso ezagunak. Ikaburuako leizea ez bezala, ez daude publikoari irekiak. Ikusi nahi dituenak Vianako Printzea erakundeari eskatu behar dio sartzeko baimena. Leizeak eremu pribatu batean daude, Berroberria baserriaren lurretan hain zuzen ere. Etxeko belai batetik pasatzea beharrezkoa da, sarreraraino ailegatu ahal izateko. Urdazubiko Leizeak ez dira oso handiak; 60 metro inguru ditu leizezulo luzeak.

Leizeetako sarreran Paleolitikoko hainbat aztarna arkeologiko aurkitu zituzten 70eko urteetan. Norbert Casteret arkeologo frantziarra izan zen leizeak aztertu zituen lehen aditua. Bera izan zen paretetan margoak ikusi zituena. Joxemiel Barandiaran bera

ere Urdazubiko leize hauetan ibili zen arakatzeko, ikertzeko eta bere jakintasunarekin leizezuloen aztarnak argitzen, 1935ean Alkerdin, aztarnategia aurkitu zuen. 1977tik 1995era Ignacio Barandiaran Nafarroako Unibertsitateko ikertzaile ospetsua aztarnen bila aritu zen Urdazubiko kobazuloetan, bere andrearekin eta zenbait ikasle eta laguntzaileekin.

Berroberriako leizean basahuntza, idikonkor edo bufaloa eta zaldi baten marrazkiak ikusi daitezke. Alkerdin, ordea, zakur itxurako margoa agertu da paretetan. «Bisitariak izan dezakeen arazoa margoak ikusi ahal izatea da, ez baitira erraz nabari, muturra edo puztana ikusi ditzakezu, baina den-dena ikustea oso zaila da», azaldu du Goio Hualde Ikaburuako




leizeen arduradunak. Bi leizeetan aurkitutako aztarna guztiak Bilboko etnografia museoan eta Nafarroako Museoan daude: basahuntza grabatua duen hezurra, arpoiak, harriak, zeramika puskak...

Aztarnak Urdazubiratu nahi dituzte

Guztia eraman zuten Urdazubitik. Orain Udalaren gogoa da horiek guztiak lehengoratzeko herrian erakusketa egin ahal izateko. «Berroberria eta Alkerdi Xaretako ibilbidean sartzeko gustatuko litzaziguke», erran du Goio Hualdek. Baina berriki Vianako Printzeako arduradunekin eta Nafarroako Gobernuarekin bilera izan dugu, eta ez dute aurpegi onik jarri. Guk Historiaurreko jardunaldiak antolatze gogoa genuen, piezak leheneratu eta erakusketa egin, baina oraingoz ez da posible izanen».

Pieza horiek ez omen dute balio handirik arkeologian.



Alkerdin diren margoen grabatua eta aurkitutako arpoiak. • EGUNKARIA

Horregatik, museoetan ezin dira ikusi, eta gehienak gorde-ta dituzte. «Urdazubiko margoaz gain, Nafarroan ez da bertze leizeetako arterik aurkitu», dio Hualdek. «Sara edo Isturitzera bilduz gero, ikusten da hemengoak ez duela hainbertzeko baliorik, baina

Nafarroan garrantzi handia badute». Aurkitu gabeko leize gehiago badela uste da inguruan, eta ikerketa gehiago egitea beharrezkoa dela pentsatzen da Urdazubin.

→ RAKEL GOÑI

Ikaburuako leizeak

Urdazubiko Leorlas auzoan Ikaburuako leizeak daude. 1808an aurkitu zituzten, eta Kristo aurreko 30-20.000 urtekoak dira. Ikertzaileek jakin dutenez, Historiaurrean leize horietan gizakiak bizi izan ziren. Hor aurkituriko aztarna arkeologikoak, baina, ez dira oso garrantzitsuak. Horregatik, Alkerdi eta Berroberriakoak ez bezala, Ikaburuakoak bisitatzen ahal dira.

Urtxuma erreka haitzulo hau zeharkatzen milioika urtetan egin duen bidea da ikusgarriena. Estalaktita eta estalagmitak landutako osotasun natural izugarri eta harrigarria da Ikaburu. Iaz 32.000 lagun inguru pasatu ziren Urdazubiko leizeetatik. Bisitari gehienak Iruñetik eta EAetik datoz, baina opor garaian Valentzia, Katalunia eta Madrildik datorren jendearen kopurua ere nabaria da. Bisitak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egiten dira. Sarrera Matxingonea baserriaren ondoan dago. Leizeak ikusteko ordutegia: neguan, lanegunetan 15:00etatik 18:00etara (astelehenetan itxita), eta asteburuetan 11:00etatik 18:00etara; udan, egunero 10:00etatik 20:00etara.

Egozkue •

Ehiza luxuzkoa ote?

Igandean hasiko da kontrapasa, usoak hegoaldeetik bueltan datozenean ehizatzeke garaia

1580 URTE ALDERA, EGOZKUEKO AIZTONDOA, IGOILI eta Usataberri usategiak oso preziatuak ziren, Florencio Idoatek *Rincones de la historia de Navarra* liburuan idatzi zuenez. Anue ibarreko ehiztariek ez ezik, Baztangoek ere —apaizek batik bat— nahi zituzten usategi horiek.

Izan ere, lortzen zuten etekina, gutxi gorabehera, 200 florinekoa zen. Ideia egiteko, florin batekin dozena bat uso eros zitezkeen. Gau eta egun aritzen ziren ehiztariak sareak paratzen horrelako emaitzak lortzeko. Aiztondoa eta Igollin eguneko laurogei bat dozena harrapatzen omen zituzten, eta Usataberri hamaika bat dozena. Hamabi gizon inguru elkartzen ziren bertan, eta zazpi edo zortzi sare zabaltzen zituzten.

Geroz eta uso gutxiago

Sinetsezinak dirudite datu hauek. Usoen kopurua izugarri jaisteaz gain, parada gehiago daude, eta Egozkueko ehiztariak apenas usorik ikusten duten, Miguel Iruritik NAFARKARIari adierazi dionez: «Azkeneko foru legea onartzearekin batera, usategi berriak paratu zituzten Baztanen eta Erron; eta Eugikoei ere baimena eman zieten fronte berria jartzeko, justu gure aurrean. Beraz, orain oso zaila da hona usorik ailegatzea, eta ailegatuz gero, oso altu pasatzen dira». Gainera, Miguel Iruritarren ustez, «ehiza egitea eliteko kirol bihurtzen ari da; ehiza elkarteko kide

Kontrapasan, gero eta zaletasun gutxiago dago, emaitzak ere gero eta urriagoak direlako. Garai batean erresumako usategi preziatuak eta garestienak izan zirenak, Egozkuekoak, gaur egun, Txaboletako hamaiketakoengatik ez balitz, hutsik egonen lirateke.



Ikaburuako leizea bisitatzen ahal da, baina Alkerdi eta Berroberriakoak itxita daude. • FOTO ZALDUA

izateko urtean 240 euro inguru ordaindu behar da, jantzia eta tresnak erosi, munizioa... Gero eta diru gehiago gastatu behar da, gero eta ehiza gutxiago hartzeko.»

Orain dela lau urte arte debe-

katuta zegoen Nafarroan kontrapasan ehizatzea. Orain baimenduta dago, baina hainbat arau bete behar dituzte: gehienez hiru uso har daitezke eguneko eta pertsona bakoitzeko, betiere baimendutako paradetan. Eta

joaten diren bakoitzean fitxa bat bete behar dute azaltzeko zenbat ehiztari dauden, zenbat uso hartu dituzten eta zenbat ikusi dituzten, besteak beste.

→ Txari Elela

Zangoza •

Nafarroako historia berriz

Zangozako Ikastolak antolatuta, bigarren aldiz, Nafarroako historiari hurbiltzeko jardunaldiak egingen dituzte Zangozan, herria bera eta bere ingurua oinarri hartuz. Bost hitzaldi izanen dira denetara, hilaren 12tik 19ra.

Asteartean, Pedro Arrese irakasleak Zangozaldeko historiaurreko aztarnak izanen ditu mintzagai. Asteazkenean, Pedro Esarte historialariak 1512-1530 denbora tarteaz aztertuko du, Nafarroako konkistari, okupazio eta menperatze militarri, zibilari eta erlijioso-

ari erreparatuta. Ostegunean, Josu Txueka EHUKo irakasleak *Nafarroako is(t)mo-en lurralde* izenburuko hitzaldia emanen du, gure garaiko baskismoa eta navarismoa aztertzeko. Ostiralean, Fernando Eskuer Markuello ikerlariak antzinako Nafarroa aragoiara izanen du hizpide. Eta jardunaldiak bukatzeko, Emilio Majuel Gil NUPeko irakasleak Espainiako II. Errepublika garaiko Zangozaren gainean hitz egingen du.

Hitzaldi guztiak Kultur Etxean izanen dira, 20:30ean.

Viana •

Nafarroa eta bere historia

Lizarrako Irujo Etxea fundazioak hitzaldi zikloa antolatu du Vianan, hurrengo hiru ostiraletarako. Hitzaldiek 1512ko Nafarroa izanen dute ardatz.

Lehenbiziko hitzaldia Tomas Urzainki abokatu eta historialariak emanen du, gaur. Nafarroako estatuko lurraldetasuna izanen du mintzagai. Hurrengo

ostiralean, hilaren 15ean, Alvaro Adot historialariak XV eta XVI mendeetako Nafarroako erregeen politika aztertuko du. Eta bukatzeko, hilaren 22an, Mikel Soraren historialaria Aro Garaikideko Nafarroako erakundeez solastatuko da.

Hitzaldi guztiak Vianako Kultur Etxean izanen dira, 20:00etan.



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Maiordomo paganoa

Larraburu-Eneko baratzean Guantanamo presoeri buruz hizketan ari naiz, gauza sakon eta funtsezkoak esaldi labur eta perfektuetan lotzen, nire entzule bakarrari (Bexikulak: nire maiordomoa, nire txoferra, nire lorezaina) bere iritzia ematea otu zaionean:

«Zer esango dizut Jefe —hasi zait landatzen ari zen baratxuriak alde batera utzirik—, ni paganoa naiz, zer ostia! Pagano galanta, gainera! Gauza guztiak beren jainko txikia dutela sinesten dut, eta, beraz, eginkizun txikiena egin aurretik jainko ezezagun horiei guztiak erregu egiten diet badaezpada ere. Arrautza frijitu batzuk egin behar ditudala? Bada, Arrautza Frijituen Jainkoari egiten diot erregu eta, sinetsiezadazu, olioaren zipritinak gutxiagotzen dira horrela, olio bera baretuko balitz bezala. Beste adibide bat, Nausi; zuk horrenbeste maite dituzun Gailleta Maria kaxa berri bat ireki behar dudala? Bada, Ukitu gabeko Leku Itxien formula ozenki esaten dut (gaileten izpiritua baretzeko) eta bi aldiz, gainera: kutxa irekitzerakoan eta gailetak gordetzen dituen plastikotxo zabaltzerakoan, eta listo!, inongo problemarik gabe jan daitezke orduan. Azokan gauzak entzuten dira... badakizu... maiordomo batzuek Ukitu gabeko Leku Itxien formula esan gabe izokin lata bat ireki zutela eta ondotik haletako bi istripu misteriosuetan hiltzirela eta ez dakit zer, badakit zer... Kontuz ibili behar dugu! Orain, sakrifizioez galdetzen badidazu... zer esango dizut... batzuk egin behar dira! Porruak landatu behar dituzula? Beno, bi laranjari labana sartu eta zuku bertan isurtzea ez dator gaizki... Gauza horiek jainkoen gustukoak dira, porruak ongi haziko dira horrela!! Orain... pffff... erromatarrek egiten zuten Suovetaurilia ez da beharrezkoa! Hau da: txerri bat, ardi bat eta zezen bat hiltzea!! Hori demasa da! Batzuek egiten dutela? Bai... baina finka erraldoietan eta... Zaharichen esate baterako bai! Baina, klaro, porruak landatzea edo Mihura zezenak haztea ez da gauza bera!!»

Eta hau esanda, Bexikulasek baratxuriak landatzeari ekin dio berriz ere (bere formulak marmartzuten dituen bitartean). Orduan ulertu dut zer dela-eta eleberrietan maiordomoak izaten diren susmargarrienak, eta zaratariek egin gabe etxeratu naiz •



Iruñerías

Radio Requeté de Navarra-z.

Iruñerías saioak Nafarroako irratigintza irauli zuen trantsizio garaian —baldin eta trantsiziorik izan bazen, inor ez dadila aztoratu—: Iruñea Markinako limoi basatiekin egin Cruz del Gorbea gaseosa —**Carlos Garaikoe-txeak** sekula santan edanen ez duen gaxeoxie— bezain eferbeszentea zen garaiotan, panorama politikoa Knör —inor pentsatzen ari bada Eusko Alkartasunako kideak aipatzen tematu naizela, lasai dadila; izan ere, EAKo europarlamentari abeslari baten abizena izateaz gain, Knör kartazalzopa (ez dakit horrela esaten den, Elhuyarrek ez baitu argitzen, baina hala esan beharko litzateke, esamolde dotorea baita) ezagun batzuk egiten dituen enpresaren izena ere bada— hizki-zopa ziru-dien garaiotan —ORT, PRT, ESEI, UNAI...—, **Pilik** eta **Valenek**, Valenek eta Pilik, zenbaitetan **On Goyoren** —Nafarroak sekula santan izan duen irrati esataririk handienaren Janon Organoen iragarkia mugarriz izan da irrati publikitatearen historian (ikus *Monte Carlotik 3*)— laguntzaz, Radio Requeté de Navarrako telefonoak ireki zizkieten entzuleei nahi zutenaz nahi zutena esan zezaten.


Eta entzuleak, jakina, nahi zutenaz

nahi zutena esaten hasi ziren. Hasiera batean, eduki sozialeko salaketak izan ziren nagusi: urteotan egiten ziren alimaleko greben aldeko aldarri sutsuak eta abar —ez dut idatziko *abar luzea* zela, erdarakada delako, baina abar luzea zen—. Denborak aurrera egin ahala, baina, hiri-azpiegitura-kexuak gailendu ziren: Arrotxapeko Joaquín Beunza kalean behar baino farola gutxiago daude, hamar urte daramatzate Saunduzelaiko hiltegirako errepideko zuloak konpondu gabe... Egu-

nero entzuten nuen *Iruñerías* eta, gazte grinatsua ni, halako hiri-azpiegitura-kexu bat entzuten nuen bakoitzean sutu egiten nintzen jendea, Euskal Herri askatua lortzeko atarian ginen hartan —ai, **Telesforo Monzonen** Maltzagak eta—, zer nolako huskeriekin kezkatzen zen ikusita, entzunda.

Nafarroako erreketen oinordekoek. Ezin nuen imajinatu ere egin mende laurdenaren buruan hain zuzen ere hiri-azpiegitura-

koordinakundea. Orain arte ertzok zuri-gorritz, sanferminetako koloreez, egon dira margotuta, baina orain, supitoki, gupidagabe, **Yolanda Barcinaren** aginte taldeak hori-beltzez tindatzea erabaki du. Inori, niri bezala, aldaketa onartezina iruditzen bazaio, jar dadila nirekin harremanetan. Irungo abeslari asmatiko batek —**Fermin Muguruza** komandantea, alegia— abesten zuenez, guztia galduta egonagatik ere, beti dago izorrazterik.



Carlos Garaikoetxea, EAKo lehendakari ohia.



Nuria Iturriagagoitia, Nafarroako Gobernuko eleduna.



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

Pelloren txilaba

Sanferminen ondotik festa alaietak omen ziren inauteriak, hiru egunez irauten zutenak. Garai batean, gainera, kabalkada ederrak egiten ziren, baina ohitura hura galdu zen XX. mendearen hasieran. Jende aunitz maskaritzen zen, gizonak emakumez eta pierrot ugari ere ibiltzen omen zen, denak zahatoa bizkarretik zintzilik edota kalabaza tripontzi hustuak ardoz beterik. Musika talde eta murga franko karrikaz karrika aritzen ziren eta dantzaldiak nonahi antolatzen zituzten, batzuk dirudunentzat, berteak herri xehearentzat. Azken horiek, etxabe zikin lokaztuetan egiten ziren. Horregatik, malkarra (babaren lastoa) botatzen zuten, «nesken zapatak ez zikintzeko». Izkinan makilaria jartzen zen. Makila zolan jotzen zuenean, dantza lotuan ari

ziren bikoteak hautsi eta bertze bikotekide batekin hasi behar zuten.

Hiru egunez hiria azpikoz gora jartzen zuten, baina, hein batean baizik ez. Izan ere, arratsaldeko seietatik aitzinera, mozorrotutako guztiek maskara kendu behar zuten, eta eliza eta komentuetan eliz funtzioak izaten ziren inauteriek zekarten iraina garbitzeko. Gero, Francoren garaian debekatu zituzten. «Iruñean, mozorroak bai, baina aste santuko prozesioan», horixe erran zuen elizako kargudun handiki batek. Bada, Francok festa galazazi, usadioan mozketa gertatu eta, azken hogeita bortz urte honetan, hamaika saialdi eginagatik ere, ez da gorpuztu hiriko inauteria. Edo hobe erran, gorpuztu da baina ez inauterietan, Urtezahar gauean baizik.



Iruñeko inauteri kaletarrak.


Horregatik, hara zer gertatu zitzaion Pellori duela zenbait urte inauteri garaian. Urte hartan ere, Txutxin antolatzaille nekagaitzak egitarau oparoa presatatu zuen Nabarrerria alderako, eta

Pelloc hara jo zuen, txilabaz mozorrotua, Arturo Campion euskaltegiko ikas-kideekin batera. Jende maskaradun gutxiro, ordea, eta gauerdian erabaki zuen Tafallara joatea, sekulako giroa izaten baita Zidakos alde hartan inauterietan. Autorik ez, eta Zaragoza etorbidean estopean egin eta Noaineraino eraman zuten. Gure Pello larru ilun xamarra da, eta han, barrenak laxatzeko beharrak eraginda, bi autoren artean makurtu zen txilaba erdi goratuta. Lan nekoso hartan ari zela, gizonezko noaindar bat agertu zen, zakurra kaka egina-raztera karrikaratu: «Mairu purzil zikiñe. Hoa Afrikara hire herria zikintzera». Oihu hura entzunik, gazte mozorrotuak, zutitzearekin batera galtzontziloak goratu eta ihesari eman zion. Atzamarra atera eta kamioilari batek eraman zuen Tafallara. Airean zintzilik gelditu zen txoferrak egindako galdera: «Hik kaka urrina sumatzen duk?».

Juan Velez

KARRIKIRIKO ZINEMALDIKO ANTOLATZAILEA

«Euskarazko filmak gehitzean utziko dugu zinemaldia»



● LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

soslaia

Juan Velez Nuñez 1968an jaio zen Cadizen (Espainia). 25 urtekin etorri zen Iruñera eta bost urte hauetan bere gustuko giroa eta bizimodua aurkitu du gurean. Hemengo lagun baten bidez etorri zen eta bitan bisitan egon ondoren, bere bizilekua du orain Iruñea.

Nafarroara etortzerakoan oso argi izan zuen bertako hizkuntza ikasi behar zuela. Berehala eman zuen izena IKAn eta bost urtetan primeran ikasi du euskaraz mintzatzen. Hizkuntzak ikasteko errezitasuna omen du.

Zinemazalea izaki, duela bi urte ekin zion Karrikiriko Euskarazko Zinemaldia antolatzeari. Lana eta asialdia uztartuz oso gustura egin ditu lanak. Emaitezkin ere oso gustura dago.

ZAILA DA KARRIKIRIRA AILEGATzea. Eta ez urrun dagoelako. Iruñeko Alde Zaharreko bihotzean du egoitza, euskaldun guztien bilgune eta topaleku. Alta, entibadora dute ate atarian. Zulo ikaragarri handia salto egin eta Juan Velezekin izan gara.

■ **Iruñeko Udaleko Euskaraz Zerbitzuaren ekimenez, duela bost hasi zen Karrikiri zinemaldia antolatzen. Zein helburu ditu zikloak?**

Iruñerriko euskaldunei zinema euskaraz ikusteko aukera eskaintzea eta euskal zinemagintza sustatzea. Finean, euskararen normalizaziorako bidean urrats bat egitea. Zinema aretoetan euskarazko filmak normaltasunez pantailaratzen dituztenean erretiratuko gara. Mementoz, aurrera segituko dugu.

■ **Normaltasunerako bidea luzea izanen da dena den?**

Nik bi gako azpimarratuko nituzke. Batetik, errentagarritasunaren aldetik ezer gutxi egiten ahal dela. Eta bestetik, film bat egiteko, nahiz eta film laburra izan, dirutza behar dela. Beraz, Euskal Herriko erakundeek ez badute diru laguntzarik ematen, nekez ailegatuko da normaltasun hori. Dena den, gai horretan kontrako iritziak daude. Batzuek diote euskal zinema errentagarria dela; besteek kontrakoa.

Gaur zortzi hasi zen Iruñeko Karrikiri Elkarteak urtez urte antolatzen duen 'Zinema Euskaraz' zikloa. Orotara zortzi film luze eta labur bat pantailaratuko dituzte ostiraletan, maiatzaren 17a bitartean. Gaur 'Inorena ez den lurtean' ikusten ahalko da.

■ **Zinemaldiak bosgarren aldia bete du; erabat finkatuta dagoela erraten ahal da?**

Agian hori ez da guk esan beharreko gauza. Edo bai. Jendeak Karrikirira deitzen du zinemaldia noiz hasiko den galdetzeko. Nolabait, erreferente bat bihurtu gara Euskal Herrian.

■ **Zailtasunak dituzue euskarazko filmak topatze-ko?**

Hasi ginenean ez genekien nora jo, baina urteek ematen diguten esperientziarekin, orain jakin badakigu zein atetan jo behar dugun. Dagoeneko, zinema banatzaileei deitu orduko bada-kite nortzuk garen, eta ez da arazorik izaten.

■ **Alta, joan den urtean euskarazko film laburrak sustatzeko lehiaketa antolatu zenuten, eta aurreneko**

aldi horretan harrera ona izan bazenuten ere, aurtan ez duzue film bakar bat ere jaso.

Ez. Abenduan deialdia zabaldu genuen, eta jarri genituen baldintzak betetzen zituen filmik ez dugu jaso. Nik uste dut zailagoa dela film laburra egitea. Nahiz eta aurrekontu apalagoa izan, errentagarritasuna ere murriztagoa da. Jende gutxik ikusten dituen filmak dira, eta elitista fama ere badute. Beraz, zaila da, eta are zailagoa euskaraz egitea, eta are zailagoa gaztelaniaz egin eta euskarara bikoiztea. Film luze bat bikoizteak, adibidez, 18.000 euro balio du.

■ **Dena den, iaz egindako film labur bat topatu duzue, Bertzea. Oso bitxia da film honen atzean dagoen historia, ezta?**

Bai. Poza handia izan da film hau topatzea. Iparraldean egindako filma da, Euskal Herrikoa ez den pertsona ez euskaldun batek euskara hutsez egindakoa. Safy Nebbou da Bertzea fil-

maren zuzendaria, Aljeriako da, eta Parisen bizi bada ere, Ipar Euskal Herrira maiz dator, eta oso gustukoa du. Filma ikusi ez badugu ere, baserriaren baten historia omen da. Oso historia xamurra eta atsegina.

■ **Karrikirik urtez urte antolatzen du zinemaldia. Aldiz, duela egun gutxi zinema zikloa aurkezteko egin prentsaurrekoan ez zen Karrikiriko ordezkari izan.**

Hori Kultura zinegotziari galdetu beharreko gauza da. Guk ez genuen gonbidapena jaso, eta, beraz, ez ginen joan.

■ **Prentsaurreko horretan Vicente Etayo Kultura zinegotziak Karrikiri enpresa bat dela esan zuen.**

Hori ere berak argitu beharko du. Orain arte Iruñeko Udalaren eta Karrikiriren arteko hitzarmen bat sinatzen genuen zinemaldia antolatzeko. Aldiz, aurtan erabaki dute hitzarmen bat sinatu beharrean kontratu bat egin behar zela, eta horretarako baldintza batzuk jarri zituzten. Guk baldintza horiek dagoeneko betetzen genituen. Dena den, argi geldi dadila gu ez garela enpresa bat, elkarte bat baizik. Egia da gauzak aldatu direla, baina egia da, halaber, zinemaldia hor dagoela.

→ Kristina Berasain

ORDUTEGI BERRIAK

Golem-Baiona zinematokietan, 20:30ean.

Eguna	Filma
Otsailak 1	'Jainkoaren ertzak'
Otsailak 8	'Inorena ez den lurtean'
Otsailak 15 eta 22	'Chicken run'
Martxoak 1 eta 8	'El Bola'
Martxoak 15 eta 22	'Guztieki nahi zuten hilda'
Apirilak 12 eta 19	'Liam'
Apirilak 26 eta maiatzak 3	'Ekialdea ekialde'
Maiatzak 10 eta 17	'Ogia eta arrosak' + 'Bertzea'

Sarrera: 3,5 €

Subentziolandin galdurik



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Elizarekin topo

Etorri zenean progearen kurrikuluma ezarri nahi izan zion hainbatek, eta berehala izan genuen bere jarrera *euskaltzalearen* berri. Euskara ikastea izan omen zen bere lehen zereginetako bat, eta Bakarka hartuta ikusi genuen gure irudimenean, Bortziritako fededunekin hurbileko harremana izateko prest.

Orduan ere Opusetik gertu zegoela esan ziguten beste askok, eta kontuz ibiltzeko, kargu aldaketa ahalik eta modu baketsuenean egin ahal izateko ikusten genuena ardi mozorratuta zela. Haiek ohartarazi ziguten denborak erakutsiko zigula zein zen iritsi berriaren benetako talantea.

Eta bizitzak bere bidea egin zuen, dena argitu zuen. Batzuek ziotena ezerezean gelditu zen eta besteek ohartarazi zutena egia borobila zela ikusi zuen ikusi nahi izan zuenak. Elizaren tolerantzia, aniztasuna eta neutraltasuna predikatzen zituen pulpitu ofizialetatik, baina lagunartean zegoenean mingaina eta luma askatzen zitzaizkion eta benetako aurpegia erakusten zuen egunkari zahar eta horizatuetan.

«Berriro ere Zugarramurdiko kobazulotan miatu behar da, herexek sutara kondenatzeko momentua ailegatu da, eta 36an bezala, gurutzea eskutan hartuta euskaldun, abertzale eta gorrien bila abiatuko dira gure aingeru lurtarrak. Gurutzada berrirako deitu dute Eliza eta gerra hotsak nagusitzen direnean ezin gara atzean gelditu».

Gisa honetako gauza lurtarrekin zegoen kezkatuta Sebastian jauna, Santiago eta bere Espainia itxiaren defentsa sutuan murgilduta. Baina konturatu gabe deabrua beste leku batetik agertu zitzaion, ziurrenik abertzale gaiztoak bultzatuta. Serora zahar batek ekarri zion horma batetik kendu berria zuen kartela eta Nafarroako Elizaren artzain nagusiak ezin zuen sinetsi bere begiek ikusten zutena: «Apaiz eta seroren harrotasunaren jaia. Alakarga taberna. Zatoz eta ongi pasatu».

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Iruñea:** Bol taldeak Iturramako Gorriak tabernan joko du, gaur, 21:00etan.
- ▶ **Aitzoain:** El Columpio Asesino eta Telephunken taldeen kontzertua izanen da, gaur, 22:30ean, Artsaian.
- ▶ **Iraizotz:** Sargento Piperrak taldeak ostatuan joko du, bihar, 20:00etan.
- ▶ **Lekunberri:** Flitter eta Dank taldeek gaztetxean joko dute, bihar, 23:00etatik aurrera.
- ▶ **Iruñea:** Arrapo de Monte eta bere mariatxiek Alde Zaharreko auzo elkartearen joko dute, bihar gaueko hamabietatik aurrera.
- ▶ **Burlata:** Los Perezosos taldeak Black Rose tabernan joko du, asteartean, 20:30ean.
- ▶ **Iruñea:** Vacazul taldea Terminal tabernan izanen da, ostegunean, 21:30ean.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Doneztebe:** Igandean, 14:00etan, bertso bazkaria egingen dute Jokin Sorozabal eta Sebastian Lizasorekin.

ANTZERKIA

- ▶ **Iruñea:** Lamixiñe BAT taldeak *Ahatetxo itsusia* antzezlanataularatuko du, bihar, 12:00etan, Gurutze plazako Mikael aretoan.
- ▶ **Iruñea:** TEN Pimpilinpauxa taldeak *Zapatak hondaturik* antzezlanataularatuko du, bihar, 19:00etan, Nabarrera kultur zentroan.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Txamuskina taldeak *Behin batean* haurrentzako lana taularatuko du, asteartean, 12:30ean, Kultur Etxean.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazok haurrentzako ikuskizuna eskainiko dute, asteazkenean, 18:00etan, Kultur Etxean.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Gaur, Karrikiriren zinemaldiaren baitan, *No man's land* filma estreinatuko dute jatorrizko bertsiotan euskarazko azpituarekin, Golem-Baiona zinematokietan, 20:30ean.

IKASTAROAK

- ▶ **Atarrabia:** Kirol Patronatuak eskalada ikastaroa antolatuko du, Atarrabiako eskalada horma berriaren egiteko, astelehenean eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era. Ikastaroa otsailaren 18an hasiko da. Informazio gehiago, Indurain Anaien kiroldegian (948-382255).
- ▶ **Iruñea:** Hitano ikastaroa antolatuko du AEK-k. Ikastaroa Iruñezar euskaltegian izanen da (Errekoletak, 16), astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara. Hilaren 19an hasiko dira. Informazio gehiago, 948-210433 telefonon.

LEHIAKETAK

- ▶ **Uitzi:** Nikolas Ormaetxea Orixo Literatur Sarirako lanak aurkezteko epea hilaren 28an akituko da. Olerki eta narrazio labur sailetan lan bana aurkezten ahal du egile bakoitzak. Lanek euskaraz egon behar dute, eta gaia libre da. Sail bakoitzeko saria 600 eurokoa da.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Zizur Nagusia:** Marta Loredolaizzen margolanak Kultur Etxean izanen dira, hilaren 17a arte, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- ▶ **Barañain:** Izarren herria ezagutzeko *Planetario bidaiaria* era-

kusketa Kultur Etxean izanen da, hilaren 22a arte.

- ▶ **Iruñea:** *Mugak zabaltzen* egitasmoaren baitan, Zabaldiko tetegian, Lourdes Terraza guatemalarraren margola-

nak ikusgai dira, hilaren 24a arte.

- ▶ **Iruñea:** Lina Yanguas artistak hainbat teknikarekin eginiko lanak erakusketa Ormolu gale-rian izanen da, hila bukatu arte.

Astekero erakusketa



● JOSE OSKOZ OROZ

'Nepaletik ibilaldi bat'

Zer: Jose Oskozen argazki erakusketa.

Non: Atarrabiako Kultur Etxean.

Noiz arte: Otsailaren 15a arte.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.